

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1914

AGINDUA, 2025eko apirilaren 15ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta deskarbonizazioaren bidez beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzako 2025eko ekitaldirako dirulaguntzen programa iragartzen baita. «Deskarbonizazio Industrialeko Programa».

Europako Batzordeak 2019ko abenduan aurkeztu zuen Europar Batasunaren Itun Berdea, zeinak helburutzat baitu Europa klimaren aldetik neutroa den lehen kontinente bihurtzea 2050erako. Klimari buruzko Europako legeriak (2021/1119 EB Erregelamendua) klima-neutraltasunerako konpromiso hori jaso du legeria loteslean, eta bitarteko helburu bat ezarri du 2030erako: berotegi-efektuko isuriak gutxienez % 55 murriztea 1990eko mailekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2024-2028 aldirako Gobernuaren XIII. Legegintzaldirako «Ongizatean Hazi» programak esplizituki hartzen du karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egiteko konpromisoa, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapena bultzatzeko aukera gisa. Horretarako, nazioartean adostutako klima-neutraltasuneko helburuak betetzeko konpromisoa hartzen du, eta batez besteko tenperatura globala 2 gradu zentigradutik gorakoa izan ez dadin eta 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izan gaitezen laguntzen du.

Konpromiso horretan sartzen dira, alde batetik, «Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren 2021-2024 aldirako Plana (ETKAP 2021-2024)», Eusko Jaurlaritzak 2021eko azaroan onartu zuena, eta, bestetik, 2024ko otsailaren 8ko 1/2024 Legea, Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketari buruzkoa, 2050a baino lehen Euskadin klima-neutraltasuna lortzekoa.

ETKAPEk jarraipena ematen dio Euskadik klima-aldaketaren arloko politika aktiboen garapean egindako ibilbide luzeari. 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren aurkako lehenengo Euskal Planaren ostean, 2015ean, 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia argitaratu zen, BEG (berotegi-efektuko gasak) isuriak gutxienez % 40 murriztekoa 2030era bitartean, eta gutxienez % 80 2050erako, 2005eko datuekin alderatuta.

Euskadik urtero egiten du Berotegi Efektuko Gasen Inbentarioa, 2000. urtetik, orduan egin baitzen kalkulua lehen aldiz. 2023ko txostenak dio EAEko BEG isurketak % 8,4 murriztu zirela aurreko urtearekin alderatuta. 2023an, Euskadiko BEG isuriak 17 milioi tona izan ziren, 2005ekoak baino % 33 gutxiago.

Klima-neutraltasuneko helburuak lortzeko, ahalegin handia egin beharko da Euskadiko esparru ekonomiko guztietan eta, batez ere, industria-sarean, ekoizpen-prozesu industrialak deskarbonizatzeko inbertsioak egin beharko baititu. Inbertsio pribatu horiek funts publikoen laguntza beharko dute eta, aldi berean, Estatuko laguntzei buruzko Europako araudia errespetatu beharko dute.

Zeharka bada ere, klima-neutraltasunerako trantsizioak aukerak ematen ditu EAEko industria-sektore estrategiko batzuk garatzeko, hala nola energia berriztagarriak, hidrogeno berdea eta energia-biltegiatzea balio-kate osoan zehar. Halaber, teknologia horiek hedatzeak energia-hornidura propioaren eta baliabideen erabilera efizienteagoaren alde egingo du, eta horri esker ingurumena zaindu eta klima-aldaketarekiko erresilientzia handiagoa eduki ahal izango dugu, bai eta kanpokoekiko energia-mendekotasun txikiagoa ere. Energia-aurrezpenak eta -efizientziak ere

rol garrantzitsua izan behar dute, eta, bide horretan, energia primarioaren eta azken energiaren kontsumoak murriztu behar dira.

Horregatik guztiagatik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak industria-enpresei eta industria-produktuarekin eta -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresei laguntzeko programa hau proposatzen du, ekoizpen-instalazioetan (berriak edo lehendik daudenak) inbertsioak egin daitezen sustatzeko, haien industria-prozesuen ondorioz –bai energia-kontsumotik eratorritakoak, bai ekoizpen-prozesuetatik eratorritakoak– berotegi-efektuko gas (BEG) gutxiago isur daitezen.

Laguntza-programa honek aukera emango du inbertsioen gainera erabakiak aurreratzeko eta euskal industriari laguntzeko, klima-neutraltasunerantzko trantsizioko testuinguru europar nahiz globalean lehiakorra izaten jarrai dezan.

Programa ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: 2022-2027rako eskualde-helburuko estatuko laguntzei buruzko gidalerroak (2021eko apirilaren 29ko AO, C 153); 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 107. eta 108. artikuluko aplikatuta (2014ko ekainaren 26ko AO, L 187), 2023ko ekainaren 23ko Batzordearen 1315/2023 (EB) Erregelamenduan jasotako azken aldaketan adierazitakoa, zeinaren bidez honako hauek aldatzen baitira: alde batetik, 651/2014 (EB) Erregelamendua, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 107. eta 108. artikuluko aplikatuta, ingurumena babestera bideratutako laguntzen ataleko 36. artikulukoak; eta, bestetik, 2022-2027 eskualdeko laguntzen mapari Batzordeak emandako onarpena (SA 100859, 2022ko martxoaren 17ko Erabakia).

Hala, baldin laguntza horiek arautzean eta ematean erregelamendu horretan ezarritakoa errespetatu eta betetzen badute estatu kideek, dirulaguntza horiek Europar Batasuneko merkatuarekin bateragarriak direla ulertuko da, eta, beraz, ez diote Europar Batasunaren baimena lortzeko Europako Batzordeari jakinarazpenik egin behar; hala, nahikoa da jakinarazpena egitea kasu bakoitzerako aurreikusitako epeetan.

Europako laguntza-erregelamenduaren bertsio berriak bi aukera ematen ditu: edo ingurumenaren babes-maila txikiagoa duen inbertsio alternatibo baten kostu gehigarriak finantzatzea –edo inbertsioaren balio erantsi garbiarekiko kostu gehigarriak, gerora–, edo, bestela, kalkuluen konplexutasun hori saihesteko, kostu hautagarritzat berotegi-efektuko gasen (BEG) isurien murrizketarekin zuzenean lotuta dagoen inbertsio hautagarri osoa hartzea, eta ez egoera alternatibo batekiko kostu gehigarria soilik. Inbertsio osoaren gainera bigarren laguntza-aukera horretan, laguntzaren intentsitatearen ehunekoa txikiagoa da; haatik, laguntzaren intentsitate txikiago hori inbertsio osoari aplikatzen zaionez, eta ez soilik kostu gehigarri bati, termino absolutuetan ez dago alde nabarmenik laguntzaren diru-zenbatekoari dagokionez, eta, gainera, prozesua errazagoa bihurtzen da eskatzaileentzat. Laguntzen kudeatzaile publikoentzako prozesua ere errazten du, ez dutelako erreferentziako balizko inbertsio bat ebaluatu behar.

Europako erregelamenduaren bertsio berriak aukera ematen du, halaber, laguntzaren intentsitatea areagotzeko enpresa txiki eta ertainen kasuan, bai eta laguntzaren xede den inbertsioa Ezkerraldeko Zabalgunean kokatzen den kasuetan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalitetuen konfigurazio berriaren arabera (2022-2027).

Deialdi honek kalkulu-orri bat planteatzen du, eskatzaile guztiek erabili beharko dutena eta enpresei aukera emango diena eragotzitako isurien kalkulua egiteko: CO₂eq isuriak alderatuko dituzte, dirulaguntzaren xede den inbertsioaren ondoren, inbertsioaren aurreko egoeran zeuden CO₂eq isuriek.

Horrez gain, kalkulu-orriak bertan erabilitako isurtze-faktoreak estandarizatzen ditu, eta horrek aukera ematen du ebaluazio-fasean eskabideak alderatzeko. Horretarako, eskatzaile bakoitzak inbertsioaren xede diren ekoizpen-instalazio industrialetan erabilitako erregaiak, energia-iturriak, lehengaiak eta hozgarriak hautatu beharko ditu, bai eta lortutako hondakinak ere, eta inbertsioa egin aurretik eta egin ondoren gauzatutako kontsumoa sartu, eragotzitako isuriak kalkulatzeko. Halaber, eskatzaile bakoitzak dirulaguntza eskatzen duen inbertsio hautagarriaren balioa sartu beharko du.

Laguntza-programa hau industria-sektore guztiei zuzenduta dago, betiere deskarbonizazioaren alde egiten duten inbertsioak babesteko, Europako araudia errespetatuz, jarduera-sorta zabala estaliz eta, aldi berean, ahalik eta errazena izaten saiatuz, bai enpresa eskatzaileentzat, bai laguntza-programaren kudeatzaile publikoentzat.

Azaldutakoagatik, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatua) aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa da ekoizpen-prozesuak deskarbonizatzeko inbertsioak egiten dituzten industria-enpresei eta industria-produktuarekin eta -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresei dirulaguntzak emateko programa baten deialdiaren baldintzak garatzea (Deskarbonizazio Industrialeko Programa), inbertsioen egikaritze dinamikoa errazteko eta, inbertsioak amaitu ondoren, onuradunek inbertsio horiei eutsiko dietela bermatzeko.

Programa hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduan jasota dago, zeinaren bidez Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2024., 2025. eta 2026. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu baitu. Agindua Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratu da, «www.euskadi.eus» sailari eskainitako esparruaren barruan, eta «Planak eta proiektuak» atalean.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.1 eta 10.1 artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren 2024ko ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 10. artikuluari dagokionez, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua da programa honen oinarriak eta deialdia onartzeko organo eskuduna.

Azaldutako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea.

Industria-enpresentzako eta industria-produktuarekin eta -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresentzako dirulaguntzen oinarriak onartzea, deskarbonizazioaren bidez ingurumenaren babes-maila hobetzen badute ekoizpen-instalazio industrialetan eta, beraz, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten badituzte 2025eko ekitaldirako (agindu honen eranskinean jasota daude), eta 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen deialdia egitea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia

Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarraldia.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.

ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 2025eko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egitea industria-enpresei eta industria-produktuarekin eta -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresei zuzendua, deskarbonizazioaren bidez ingurumenaren babes-maila hobetu dezaten beren ekoizpen-prozesu industrialetan, eta, hala, berotegi-efektuko gasen isuriak murriztu ditzaten. Deialdiaren baldintzak hurrengo oinarrietan daude jasota.

2.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2022-2027 aldirako eskualdeko estatu-laguntzei buruzko gidalerroen mende eta 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 36. eta 38. artikuluetan ezarritakoaren mende egongo dira. Erregelamendu horren bidez, kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (AO, L 187, 2014-06-26koa), zeina 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatu baitzuen (AO, L 167, 2023-06-30koa), betiere errespetatzen bada Europako Batzordeak Espainiarentzat onartutako 2022-2027 aldirako eskualdeko laguntzen mapa.

2. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 2024ko abenduaren 20ko 8/2024 Legeak baimendutako kredituen arabera, guztira 22.000.000,00 euro bideratuko dira deialdi honetara.

2.– Emango diren dirulaguntzen diru-zenbateko osoak ez du gaindituko aipatutako diru-kopurua, ez eta hura eguneratzearen ondorioz ateratzen dena ere –gehienez ere, aurreikusitako zenbatekoaren % 50–, betiere kreditu-loturaren araubideari edo indarrean diren legeetan aurreikusitako aurrekontu-aldaketari jarraikiz eta laguntzak ebatzi baino lehen. Inguruabar hori gertatzen bada, horren berri emango du Trantsizio Energetikoko sailburuordeak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen bat argitaratuz.

3. oinarria.– Entitate onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako dirulaguntzen onuradun izan daitezke enpresa handiak eta enpresa txiki eta ertainak (ETE), baldin eta industria-enpresak badira edo industria-produktuarekin eta -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresak badira eta laguntzaren xede diren inbertsioak Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten badituzte.

2.– Mikroenpresa, enpresa txikiak eta enpresa ertainak –ETEak– 250 pertsona baino gutxiagori lana ematen dieten enpresak dira, eta, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena dutenak, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra dutenak.

ETEn kategorian, enpresa txikitzat jotzen dira 50 langile baino gutxiago dituzten eta urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euro gainditzen ez dutenak.

ETEn kategorian, mikroenpresatzat jotzen dira 10 langile baino gutxiago dituzten eta urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euro gainditzen ez dutenak.

Beste batzuekin elkartuta edo lotuta dauden enpresen kasuan, enpresa-taldeak bete beharko ditu baldintza horiek.

ETEaren katalogazioa egiteko, kontuan hartuko da 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 4., 5. eta 6. artikuluetan eta I. eranskinean ezarritakoa. Erregelamendu horretan, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta. Erregelamendu

hori 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen (2023ko ekainaren 30eko AO, L 167). Beti errespetatu beharko dira Europako Batzordeak Espainiarentzat onartutako 2022-2027rako eskualdeko laguntzen mapa edo mapa hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenak. Enpresa krisian dagoela kalifikatzeko, aipatutako erregelamenduaren 2.18 artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

3.– Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoari buruzko 2022ko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Energia sortu eta banatzen duten enpresak.

c) Energia-zerbitzuen enpresak.

d) Armen ekoizpena, merkaturatzea eta finantzaketa helburu duten enpresak.

4. oinarria.– Entitate eskatzaileen betekizunak.

1.– Onuradun izateko, eskatzaileek enpresaren baliabide propioak erabili beharko dituzte, hau da, proiektura bideratuta daudenak eta, gutxienez, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 25era iristen direnak.

2.– Dirulaguntzei buruzko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutako egoeraren batean dauden enpresek ezin izango dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskuratu. Alegia:

a) Epai irmo bidez dirulaguntzak edo bestelako laguntza publikoak lortzeko aukera galdu dutenak zigor bidez, edo delitu hauetako bat egiteagatik kondenatuak izan direnak: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legez kontrako ordainarazpenak edo hirigintza-arloko delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratura daudenak –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen mende daudenak edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta daudenak, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izan direnak.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak, egoera hauetakoren batean badaude: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean edo Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak agintzen duen eran (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko agindua).

f) Erregelamenduz zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean egoitza fiskala dutenak.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta diru-laguntzen esparruan, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez dituztenak.

h) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 lan-giletik gorako enpresak.

i) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera arau-hauste astun edo oso astun batengatik eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez zehatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota betetzen ez dutenak, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

3.— Krisi egoeran dauden enpresek ezingo dituzte deialdi honetako dirulaguntzak eskuratu. Enpresa bat krisialdian egongo da, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko gidalerroetan xedatutakoaren arabera (2014ko uztailaren 31ko 2014/C 249/01), gutxienez honako baldintza hauetako bat betetzen denean:

a) Erantzukizun mugatuko sozietate bat bada eta harpidetutako kapital sozialaren erdia baino gehiago desagertu bada metatutako galeren ondorioz; hori gertatzen da metatutako galerak erreserbetatik (eta sozietatearen funts propiotzat hartzen diren gainerako elementu guztietatik) kentzearen ondorioz, metatutako zenbateko negatiboa handiagoa denean harpidetutako kapital sozialaren erdia baino.

b) Sozietate batean bazkide batzuek, gutxienez, sozietatearen zorraren gaineko erantzukizun mugagabea badute eta kontabilitatean ageri diren euren funts propioen erdia baino gehiago desagertu bada metatutako galeren ondorioz.

c) Enpresa porrot- edo kaudimengabezia-prozeduran badago edo bere zuzenbide nazionalen ezarritako irizpideak betetzen baditu porrot- edo kaudimengabezia-prozedura baten pean jartzeko, hartzekodunek hala eskatuta.

d) ETEa ez den enpresa bat bada, aurreko bi urteetan enpresaren zorra/kapitala ratioa 7,5etik gorakoa izan bada eta enpresaren interesen estaldura-ratioa, EBITDAren oinarriaren gainean kalkulatuta, 1,0tik behera egon bada.

4.— Kanpoan geratuko dira, halaber, berreskuratzeko agindu baten mende dauden enpresak, baldin eta horren arrazoia bada Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat lege kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izana.

5.— 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitateak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu egin beharko dute lege horretan onuraduna izateko ezarritako ordainketa-epealdiak betetzen dituztela.

6.– Aurreko apartatuetan adierazitako eskakizunak laguntza-eskabidea aurkezten denetik emandako dirulaguntza likidatzen denera arte bete beharko dira.

5. oinarria.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

1.– Lehiaketa bidezko norgehiagoka erabiliko da dirulaguntzak emateko: 6. oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuz egindako balorazioaren ondoriozko lehentasun-hurrenkerari jarraituz, puntuazioaren arabera esleituko dira aurreikusitako laguntzak (puntuazio handiena, proposamen onena), deialdiaren diru-hornidura agortzen den arte.

2.– Prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda biltzeaz gain, espresuki adierazitako xedea, onartutako inbertsio-plana, diruz lagundu daitekeen inbertsioa eta, ondorioz, emandako diru-zenbatekoa, banaketa eta guzti. Inbertsioak urte anitzekoak badira, urtekako banaketa, eta, bestalde, gainerako eskabideen ezes-tea, ukatzeko arrazoiak adierazita.

6. oinarria.– Dirulaguntzak eskuratzeko irizpideak.

1.– Aurkeztutako proiektuak irizpide hauen arabera hautatu eta ebaluatuko dira:

a) Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketen murrizketarekin zuzenean lotuta dagoen inbertsio hautagarriaren kostuen efizientzia. Hori kalkulatzeko, inbertsio hautagarriaren balioa zati inbertsioaren bidez lortutako CO₂ tona baliokideen murrizketa egin behar da, eta gehienez ere 10 urteko aldiaren kalkulatu da. Hala, zenbat eta gutxiago kostatu CO₂ tona bat murriztea, orduan eta efizienteagoa izango da egindako inbertsioa.

b) CO₂ isuri-tonen kopuru baliokideen murrizketa % balioetan, balio hori honela ulertuta: inbertsio hautagarria ezarri ondoren planteatutako CO₂ isuri-tona baliokideak alderatuta gaur egungo CO₂ isuri-tonekin, horrek ematen duen emaitza.

c) Aurkeztutako inbertsio hautagarriaren bidez lortutako CO₂ isuri-tona baliokideen murrizketa, zifra garbian.

d) Memoria teknikoaren kalitatea:

Memoria teknikoa ebaluatzeko irizpideak	Gehieneko puntuazioa
Ekoizpen-prozesuaren azalpenaren argitasuna: Memoriak modu argian deskribatzen du inbertsioaren aurreko eta osteko egoeraren ekoizpen-prozesua, eta prozesuan sartutako elementu berriak identifikatu ez ezik, haien ezaugarri garrantzitsuak deskribatzen ditu (memoriaren 2., 3. eta 4. puntuak)	5 puntu gehienez
Isurien murrizketa kalkulatzeko erabilitako kontsumo-balioen justifikazioa: Memoriak modu argi, sinesgarri eta xehean deskribatzen ditu inbertsioaren aurreko eta osteko egoeran egindako kontsumoak, eta azaltzen du nola lortu diren kontsumoei buruzko zifrak eta zer suposizio erabili diren kalkuluak egiteko. Deialdiko kalkuluaren Excelearen zerrendatuta ez dauden erregaiak kontuan hartzen badira, balioetsiko da kalkuluan erabilitako isurketa-faktorea indarrean dagoen arau batetik edo aitortutako iturri bibliografiko batetik etorri izana. (Memoriaren 5. puntua)	4 puntu gehienez
Aurretiazko txostenen eskuragarritasuna: Inbertsioa justifikatzeko alde aurreko txostenak aurkeztuz gero, hala nola energia-auditoretzak, deskarbonizazio-planak edo produktuaren, prozesuaren edo antolakundearen ingurumen-aztarnaren kalkulua, proposatutako konponbideak eta kontsumoak zehatz-mehatz deskribatzen dituzten neurrian (memoriaren 5. puntua)	1 puntu gehienez
MT GUZTIRA: memoria teknikoaren kalitatea	10 puntu gehienez

Aurreko a), b) eta c) letretako emaitzak kalkulatzeko, laguntza eskatzeko formularioarekin batera doan Excel orrian emandako datuak baliatuko dira.

Memoria teknikoaren kalitate-irizpidea aintzat hartzeko, gutxienez 6 puntu izan behar ditu.

2.– Balorazioak egiteko, a) letratik d) letrarainoko irizpideak hartuko dira oinarri, eta, notak kalkulatzeko, dirulaguntza jaso dezaketen espedienteen arteko konparazioa egingo da. Notak balorazio hauen arabera haztatuko dira:

- a) % 25, kostuen efizientziari.
- b) % 40, isuri-tonen murrizketari % balioetan.
- c) % 25, isuri-tonen murrizketari zifra garbietan.
- d) % 10, memoria teknikoaren kalitateari.

7. oinarria.– Entitate laguntzaileak.

1.– Agindu honen ondorioetarako, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia hartzen da entitate laguntzailezat, arau honetan jasotako zehaztasunekin eta xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz: Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 20/2023 Lege Orokorraren 12. eta 13. artikulua, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (dekretu horrek arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta berak ezartzen ditu horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta eginbeharrak). Ondorio horietarako, dagokion lankidetzaren hitzarmena izenpetu beharko da.

2.– SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Dokumentazio teknikoaren zuzentzeko errekerimendua egitea, beharrezkoa bada.
- b) Dokumentazioa aztertzea eta inbertsioak identifikatzea.
- c) Inbertsioen analisi teknikoak eta ebaluazio teknikoak.
- d) Dirulaguntza emateko eskatutako baldintza teknikoak edo eskakizunak betetzen direla eta benetan eraginkorrak direla egiaztatzea.
- e) Inbertsioen txosten teknikoak lantzea eta Deskarbonizazio Zuzendaritzara bidaltzea, bitarteko telematikoen bidez.
- f) Kontsulta teknikoaren erantzunak.

8. oinarria.– Eragin pizgarria.

1.– Dirulaguntzen eragin pizgarria bermatzeko, inbertsioa eskabidea aurkezteko data igaro ondoren abiarazten duten enpresek jaso ahal izango dute dirulaguntza, betiere 2025eko ekitaldi honetan hasten badute.

Ondorio horietarako, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren 2.23 artikulua arabera, hau da «lanen hasiera»: inbertsioan eraikuntza-lanak hastea, edo ekipamendua eskatzeko lehen konpromiso irmoa edo inbertsio atzeraezina egingo duen beste konpromisoren bat, data hori lehenagokoa bada. Lurrak erostea eta prestaketa-lanak egitea –hala nola baimenak lortzea eta aurretiazko bideragarritasun-azterketak egitea– ez dira lanen hasieratzat hartuko. Lanen hasiera egun horretatik aurrera izango da, betiere 2025eko ekitaldian hasita eta, gehienez

ere, 2026ko abenduaren 31ra arte, haien ezaugarrien eta enpresa-planen arabera; horrez gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Enpresek gutxienez 100.000,00 euroko onartutako inbertsioa egin beharko dute.

b) Entitate eskatzaileek inbertsioen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa arrazoitu beharko dituzte, 14. oinarrian adierazitako memoria xehatuaren eta Excel formularioaren bidez.

2.– Nolanahi ere, eskabidea aurkeztu aurretik egindako inbertsioak kontuan izango dira baldin eta entitate eskatzaileak, inbertsioak hasi aurretik, laguntzaren aurre-eskabide bat idatziz aurkeztu badu, Batzordearen salbuespenei buruzko erregelamendu orokor hauetako bakoitzaren 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera: 651/2014, 2014ko ekainaren 17koa; 702/2014, 2014ko ekainaren 25koa, eta 1388/2014, 2014ko abenduaren 16koa. Aurre-eskabideak honako informazio hau jasoko du:

a) Enpresaren izena eta neurria.

b) Egin beharreko inbertsioen deskribapena (hasi eta amaitzeko egunak barne), eta haien kokapena.

c) Proiektuaren kostuen zerrenda.

d) Eskatutako laguntza mota (aurrerakin ez-itzulgarria).

e) Hura egiteko behar den finantza publikoaren diru-zenbatekoa.

Kasu horretan, interesdunak behin betiko eskaera bat aurkeztu beharko du deialdiko epea hasten denean, agindu honen oinarrietan adierazten den moduan.

9. oinarria.– Laguntza jaso dezaketen inbertsioak.

1.– Dirulaguntzen diru-zenbatekoa kalkulatzeari begira, diruz laguntzeko moduko inbertsiotzat joko da enpresaren aktiboari gehitzen zaizkion aktibo finkoak eskuratzeko egiten den inbertsioa, baldin eta agindu honetan eta agindua garatzeko xedapenetan ezarritakoaz gain, baldintza hauek betetzen baditu:

a) Kategoría hauetako bateko aktiboak izatea, Kontabilitate Plan Orokorreko epigrafe hauetako definizioaren arabera (2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua):

- 212 – Instalazio teknikoak.
- 213 – Makineria.
- 215 – Beste instalazio batzuk.
- 217 – Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.

Indarrean dagoen sektore-araudia betez –Sektore Elektrikoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legea eta 2000ko abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituen– elektrizitatea banatzen edo garraiatzen duen konpainiari laga behar zaizkion azpiegitura elektrikoetarako inbertsioen kasuan, ez da eskatuko aurreko puntuan xedatutakoa.

Aktiboen prezioztat hartuko da haien balio «garbia», hots, fakturatutako diru-zenbatekoari balio erantsiaren gaineko zerga kenduta ateratzen den balioa.

b) Inbertsioek zuzenean egon behar dute bideratuta berotegi-efektuko gasak murriztera edo ezabatzea ekoizpen-prozesuak deskarbonizatzearen bidez, eta ondorio hauetakoren bat ekarri behar dute:

- ingurumen-babesa handitzea, Europar Batasunak onartu eta indarrean dituen arauetatik harago, edo

- erabakita dauden baina oraindik indarrean ez dauden arauak betetzeko balio izatea (baldin eta laguntzaren xede den inbertsioa Europako araua indarrean sartu baino gutxienez 18 hilabete lehenago amaituta badago), edo

- ingurumen-babesa edozein modutan handitzea, Europar Batasunaren araurik ezean.

Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioen murrizketa honela egiaztatu beharko da:

- Erregai fosilen ordeztasun erregai berriztagarriak erabiltzea.

- Erregai berriztagarrien edo elektrizitatearen erabilera murriztea.

- Natura-baliabideen erabilera murriztea edo optimizatzea, honako hauen bidez:

- Lehengai jasagarri berriak edo bigarren mailako lehengaiak, birziklatuak edo beste prozesu bateko azpi produktuak erabiltzea, edo

- industria-hondakinen kudeaketa edo balorizazioa, edo

- gas fluordunak ordeztzea.

c) Lehenengo aldiz erabiltzea edo abian jartzea. Kasu hauetan ere dirulaguntza jaso ahal izango da: establezimendu baten aktiboak eskuratzea, baldin eta establezimendu hori konkurtso-prozedura bidezko likidazioagatik itxita badago, edota establezimendu batetik datozen aktiboak eskuratzea, baldin eta hirugarren batek merkatu-baldintzetan eskuratu badu establezimendua, bestela ateak itxiko baitzituzkeen.

d) Enpresa handien kasuan, gutxienez bost urteko amortizazio-aldia ezarrita izatea, eta enpresaren aktiboan gutxienez bost urte irautea. ETEen kasuan, aldi horiek hiru urtekoak izango dira.

Indarrean dagoen sektore-araudia betetz –Sektore Elektriokoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legea eta 2000ko abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituenak– elektrizitatea banatzen edo garraiatzen duen konpainiari laga behar zaizkion azpiegitura elektrikoetarako inbertsioen kasuan, ez da eskatuko aurreko puntuan xedatutakoa.

e) Aktiboak ez egotea hirugarrenei lagata, ez kontraprestazioarekin, ez kontraprestaziorik gabe.

Betekizun hau ez da eskatuko indarrean dagoen sektore-araudia betetz –Sektore Elektriokoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legea eta 2000ko abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituenak– elektrizitatea banatzen edo garraiatzen duen konpainiari laga behar zaizkion azpiegitura elektrikoetarako inbertsioen kasuan.

f) Enpresa eskatzaileak berak edo enpresa elkartuek edo lotuek egindakoak ez izatea, Batzordearen Salbuespenei buruzko 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendu Orokorreko I. eranskinaren arabera, zeina mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak definitzeko buruzkoa

baita (edonola ere, haien balioa ez da sekula izango hartzen dituzten kanpo-kontsumoena baino handiagoa).

g) Finantza-errentamendu bidez finantzatutako inbertsioak berariaz jaso dezala kontratua amaitzean hura erosteko aukera, laguntza jaso dezakeen inbertsio gisa har dadin; baita inbertsioa gauzatzeko konpromisoa ere, bi alderdiek sinatua.

Ondasun inbentariagarriak eskuratu eta hobetzen badira, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 31.4 artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

2.– Adibide gisa, diruz lagundu daitezkeen jarduketaren tipologiaren ikuspegitik, laguntza jaso dezaketen hainbat jarduketa-ildo daude, hala nola:

a) Lehendik dagoen ekoizpen-prozesuarekin zuzenean lotutako makinetan egindako inbertsioak.

b) Lehendik dagoen ekoizpen-prozesuarekin lotutako elementu osagarri gehigarrietan egindako inbertsioak.

c) Lehendik dauden ekoizpen-instalazioei lotutako inbertsioak.

d) Instalazio berrietan edo oraindik jaio ez diren prozesu-lerroetan egindako inbertsioak (instalazio berrien edo prozesu-lerroen proiektuetan, laguntza-eskaerarekin batera hura osatzen duten jarduketa bakoitzerako CO₂ isuri baliokideak zehaztu beharko dira, aurreikusitako amaierako egoeran eta erreferentziako oinarritzko proiektu batean, bi egoeren arteko konparazioa egin eta proiektuaren deskarbonizazio-potentziala zehaztu ahal izateko; horretarako, erreferentziako egoeratzat hartuko da instalazio konbentzional baliokide bat, ez hobekuntza teknologikorik, ez ingurumen-hobekuntzarik edo energia-aurrezpenik ez duena, zeina laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin ahal izango baitzen).

e) Diruz lagundu daitezkeen inbertsioetat hartuko dira, halaber, instalazio elektriko berriak, bai eta zaharrak egokitzeko inbertsioak ere, alegia: lagundu daitezkeen jarduketaren ondorioz gehieneko potentzia onargarria handitzeko egindakoak, hala nola koadroak, transformadoreak, harguneak, lur-harguneak, korrante-harguneak, etengailuak, gaintentsioen aurkako babesak, zirkuitulaburrak eta tenperatura-aldaketak, etab. Gaitutako enpresa instalatzaileek egin beharko dituzte instalazioak egokitzeko eta legeztatze lanak, eta, horretarako, egin beharreko lan-tipologiaren eta aplikatu beharreko araudiari jarraituz eskatzen den gaikuntza espezifiko izan beharko dute.

Arestian adierazitakoaren adibide gisa, hona dirulaguntza jaso dezaketen proiektu batzuk: hondar-beroak berreskuratze sistemak; erregai fosilen kontsumoa ordeztzeko edo murrizteko inbertsioak, hala nola jatorri berriztagarriko hidrogenoa edo biomasatik datozen erregaiak erabiltzea; prozesu termikoen elektrifikazioa (bero-ponpa eta beste batzuk); energia-kontsumoa kontrolatzeko eta aurrezteko sistema digitalak, eta abar.

3.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Autokontsumorako eguzki-panelak instalatzea. Panel horiek, hala badagokio, EEE Energiaren Euskal Erakundeak kudeatutako autokontsumo-programaren bidez jaso dezakete dirulaguntza.

b) Klimatizazio-sistemen elektrifikazioari lotutako aktiboak, ekoizpen-prozesuari lotuta ez daudenak.

c) CO₂ harrapatze, erabiltzeko edo bahitzeko inbertsioak.

d) Bazkideren batek kapitalari gauzatan egindako ekarpenak.

e) Erregai fosilak erabiltzen dituzten industria-prozesuetako ekipo, makina eta instalazioetan egiten diren inbertsioetan, dirulaguntza emango da soilik lehendik dauden ekoizpen-ekipo, -makina edo -instalazioen osagai gehigarriak instalatzeko, ingurumen-babesa hobetze aldera, betiere inbertsio berriak ez badu ekoizpen-ahalmena areagotzen, ez eta erregai fosilaren kontsumo handiagoa eragiten ere.

4.– Diruz lagundu daitekeen zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudian kontratu txikietarako ezarritako diru-kopuruak eta betiere horrek hiru-garrenekin kontratatzea eragiten badu, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua.

Aurkezturiko eskaintzen artean aukeratzeko, zeinak dirulaguntzaren justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean sartu behar diren, efizientzia eta ekonomiaren irizpideak erabiliko dira. Ez bada eskaintza merkeena aukeratzeko, egindako aukera espresuki justifikatu beharko da memoria batean.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritzat hartzea bada eskaintza batzuk eskatzea, eta ez badira horiek aurkeztzen, edo eskaintza merkeena ez den bat aukeratzeko bada aukeraketa hori behar bezala justifikatu gabe, ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat eskatu ahal izango du organo emaileak, eta onuradunak ordaindu beharko ditu horrek eragiten dituen gastuak. Halako kasuetan, bi balio hauetatik txikiena kontuan hartuz kalkulatu da dirulaguntza: onuradunak adierazitako balioa edo tasazioaren ondoriozkoa.

5.– Enpresa elkartu edo lotuei erositako aktiboetatik datozen inbertsioak berariaz adierazi beharko dira eskabidean, eta kanpo-kontrolako kontu-ikuskapenetan oinarrituta baloratuko dira.

Enpresa elkartuaren edo lotuaren ondorioetarako, Salbuespenen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendu Orokorraren I. eranskina aplikatuko da; erregelamendu horren bidez, Ituneko 107. eta 108. artikulua aplikatuta (2014ko ekainaren 26ko AO, L 187), barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira zenbait kategoria.

10. oinarria.– Dirulaguntzen modalitatea eta diru-kopurua.

1.– Dirulaguntzak publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen arabera emango dira, eta prozedura bakar batean ebatziko dira.

2.– Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren –2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatua (2023ko ekainaren 30eko AO, L 167)– 36. artikuluen 5., 7., 8. eta 11. apartatuetan eta 38. artikuluen 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, ehuneko hauek izango dituzte:

a) Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 20.

b) Laguntzaren intentsitatea 5 puntu handituko da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan, eta 10 puntu enpresa txikiei emandako laguntzen kasuan.

c) Laguntzaren intentsitatea ehuneko bi puntu eta erdi (% 2,5) handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerraldeko Zabalgunean egiten diren inbertsioen kasuan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, hau jotzen da Ezkerraldeko Zabalgune-tzat: ezaugarri sozioekonomikoengatik eta langabezia-indize handiagatik, industria-krisiak beste

leku batzuetan baino eragin handiagoa izan duelako edo egiturazko hondatze-egoeran dagoelako, sustapen ekonomikoan oinarritutako tratamendu bereizia behar duen eremua. Hala, Ezkerraldeko Zabalgunea da Espainiarako 2022-2027 Eskualdeko Dirulaguntzen Mapa onesten duen Estatu Laguntzari buruzko Batzordearen 2022ko martxoaren 17ko SA 100859 (2021/N) zenbakidun Erabakian jasota dagoena.

Erabaki horretan oinarrituta, honako udal hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerraldeko Zabalgunea: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Erandio, Galdames, Gueñes, Karrantza Harana, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Valle de Trápaga-Trapagaran eta Zierbena.

Salbuespenen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendu Orokorraren 13. artikulua baztertutako sektoreetako enpresei ez zaie aplikatuko ehuneko bi puntu eta erdiko (% 2,5) igoera. Erregelamendu horren bidez, Ituneko 107. eta 108. artikulua aplikatuta, barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira zenbait kategoria (2014ko ekainaren 26ko AO, L 187), 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatua (2023ko ekainaren 30eko AO, L 167).

3.— Dirulaguntzak gehienez ere 1.500.000,00 eurokoak izango dira, enpresa eta/edo enpresa-talde bakoitzeko.

Enpresa elkartu edo lotuen kasuan, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta, 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatua (2023ko ekainaren 30eko AO, L 167)—, gehienez ere 1.500.000 eurokoak izango dira, eta gehieneko muga hori enpresa-taldearen mailan ezartzen da. Enpresa elkartu edo loturen batek esandako muga hori gaindituz gero, agindu hau dela bide emandako laguntzari muga horretatik gorako kopurua kenduko zaio.

11. oinarria.— Dirulaguntzen metaketa eta mugak.

1.— Deialdi honen bidez diruz lagundu nahi diren jarduketa berak dituzten beste administrazio publiko batzuetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira, baldin eta guztira ez badute gainditzen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 36. artikuluan ezarritako muga; erregelamendu horren bidez, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (2014ko ekainaren 26ko AO, L 187), barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira zenbait kategoria. Erregelamendu hori 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen (2023ko ekainaren 30eko AO, L 167). Dirulaguntza horien berri eman beharko zaio Deskarbonizazio Zuzendaritzari.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira proiektu edo jarduera bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta laguntza-neurri horiek beste kostu diferente batzuei buruzkoak badira edo, kostu berberak osorik edo partez laguntzeko badira ere, dirulaguntzen baturak ez badu gainditzen Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera eman daitekeen laguntzaren intentsitatea edo diru-zenbateko handiena.

Europar Batasuneko erakundeek, agentziek, enpresa erkideek edo beste organo batzuek zentralki kudeatzen duten eta zuzenean edo zeharka estatu kidearen kontrolpean ez dagoen Batasunaren finantzaketa Estatuko laguntzekin konbinatzen bada, azken horiek soilik hartuko dira kontuan jakinarazpen-atalaseak eta laguntzaren intentsitatea errespetatzen diren zehazteko, betiere diruz lagundu daitezkeen kostu berberetarako emandako finantzaketa publikoaren guztizko diru-zenbatekoak ez baditu gainditzen Europako araudi aplikagarrian ezarritako gehieneko finantzaketa-ehunekoak.

Adierazitako muga gaindituz gero, agindu hau dela bide emandako laguntzari muga horretatik gorako diru-kopurua kenduko zaio.

2.– Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeak ez du ekarriko, inola ere, diruz lagundu daitezkeen jarduketan gainfinantzaketarik. Hori gertatuz gero, soberakinari dagokion diru-zenbatekoa murriztuko da.

12. oinarria.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Batzorde bat sortuko da, aurkeztutako eskabideak baloratzeko. Batzorde hori baliozko-tasunez eratuta geratuko da bilerak eta eztabaidak egiteko eta erabakiak hartzeko, baldin eta batzordeburuak eta idazkariak (edo haien ordezkoez) bertan parte hartzen badute (presentzialki edo urrutitik) eta, gutxienez, gainerako kideetako batek ere parte hartzen badu.

Batzordearen funtzionamenduarekin zerikusia duen eta apartatu honetan aurreikusi ez den orotan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak aplikatuko dira, osagarri modura.

2.– Hauek izango dira batzordekideak:

Batzordeburua:

Francisco Javier Martínez de Lagos Manzana, Deskarbonizazio Zuzendaritzako energia-arduraduna. Ordezkoa: Imanol Rodríguez Lorente, Industria Administrazioako arduraduna.

Bokalak:

Cristina Oyón Echevarría, SPRI Taldeko Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasuneko titularr. Ordezkoa: Ainara Ratón Recart, SPRIko arlo bereko teknikaria.

Laura Izaguirre Lafuente, SPRIko garapen industrialeko arduraduna. Ordezkoa: Paula Medina Juárez, SPRIko arlo bereko teknikaria.

Luis de Velasco Pérez, EEEko Laguntzen Arloko arduraduna. Ordezkoa: Maite González Martínez de Alegría, EEEko Prozesuetako eta Eraldaketa Digitaleko arduraduna.

Ana Mezo Carro, proiektu-arduraduna, Ihobeko Ekonomia Zirkularraren Arloa. Ordezkoa: Jose María Fernández, Ihobeko Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.

Idazkaria:

Cristina Salas Cristóbal, Deskarbonizazio Zuzendaritzako aholkularia. Ordezkoa: Gloria Etxebarria Ezenarro, EEEren Proiektuen Garapena.

3.– Ebaluazio-batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Aurkeztutako eskaerak agindu honen 6. oinarrian ezarritako irizpideen arabera ebaluatzea.

b) Organo kudeatzaileari txosten bat bidaltzea, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuta; txosten horretan, eskaeren balorazioa eta horien lehentasun-hurrenkera zehaztuko dira.

c) Baloratzeko eta kuantifikatzeko finkatutako irizpide objektiboetan oinarrituz, onuradun bakoitzari zenbateko dirulaguntza eman behar zaion proposatzea, eta proposamen hori organo kudeatzaileara helaraztea.

d) Organo eskudunari aholkularitza ematea, hark eskatuta, laguntzak ematearekin lotuta sor daitezkeen administrazio-errekurtsoak ebazteko, baldin eta aurkaratzea eskabideen balorazioari buruzko alderdietan oinarritzen bada.

13. oinarria.— Eskabideak.

1.— Agindu honetan ezarritakoaren arabera aurreikusitako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten enpresek laguntza-eskabidea —eta aurre-eskabidea ere bai, aginduaren 8. oinarriaren kasuan— eta hurrengo artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etan hasiko da, eta 2025eko ekainaren 20ko 12:00etan bukatuko.

2.— Esteka honetan dago administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (bertan daude izapi-deak egiteko jarraibideak, eta bertatik sar daiteke eskabide-orrira): <https://www.euskadi.eus/servicios/0091109>

Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentuak aurkezteko eta eskabidearen osteko izapideak egiteko —jakinarazpenak barne—, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Eskabidea ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, zeina helbide honetan baitago: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

3.— Eskabide bakarra aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, enpresak aurreikusita dituen jarduketa guztietarako, entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko ahalmena duen pertsonaren sinadura onartuarekin, eta, eskabidearekin batera, hurrengo artikuluan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dira, euskarri gisa.

4.— Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte dirulaguntza-eskabidea eta agiriak. Halaber, dirulaguntza-eskabidearen ondoriozko jardueretan, eta prozedurak irauten duen bitartean, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoa betez.

5.— Ez dira nahitaez aurkeztu beharko Administrazioak dagoeneko bere esku dituen indarreko agiriak. Kasu horretan, eskabidean bertan adierazi beharko da agiriok zer datatan, zer organo edo bulegotan eta zer espedientetan aurkeztu ziren.

6.— Deskarbonizazio Zuzendaritzak, bere elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, eskudun diren zerga-organoetatik eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik zuzenean bilduko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten administrazio-ziurtagiri positiboak. Hala ere, eskatzaileak horren aurka egin ahal izango du, eta, kasu horretan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak eskabidearekin batera.

14. oinarria.— Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.

1.— Enpresa eskatzaileak eskabide bat bete beharko du (bitarteko elektronikoen bidez), eta, bertan, honako agiri hauek atxiki beharko ditu:

a) Eskatzaileak egin beharreko inbertsioen memoria xehea. Bertan, produktuari eta ekoizpen-prozesuari buruzko informazioa jasoko da, bai eta inbertsioaren aurreko eta osteko prozesua ere,

CO₂eq isurien murrizketa kalkulatzeko azalpen batekin eta ekonomia- eta finantza-planaren xehetasunarekin eta plana bera gauzatzeko epeekin batera. Instalazio berrietako edo prozesu-lerroetako inbertsioak barne hartzen dituzten eskabideen kasuan, behar bezala justifikatu beharko da aurkeztutako inbertsioaren antzeko erreferentziako inbertsioaren ekoizpen-ahalmena, bai eta erreferentziako inbertsioaren kontsumoak ere. Adibide gisa, eta izaera mugatzailerik gabe, justifikazio hori erreferentziako inbertsioaren eskaintza edo fitxa tekniko bat aurkeztuz egin ahal izango da.

(Memoria teknikoaren eredu honen arabera: <https://www.euskadi.eus/servicios/1236403>).

b) Eskatzaileak bete beharreko kalkulu-orria, enpresei aukera ematen diena eragotzitako isuriaren kalkulua egiteko. Kalkulu-orri horretan, dirulaguntzaren xede den inbertsioaren osteko CO₂eq isuriak eta inbertsioaren aurreko egoeran zeuden CO₂eq isuriak alderatzen dira.

(Kalkulu-orriaren eredu honen arabera: <https://www.euskadi.eus/servicios/1236403>).

Kalkulu-orri horrek kalkuluan baliatutako isuri-faktoreak estandarizatzen ditu, eta, horri esker, ebaluazio-faseko eskabideak irizpide bateratuen arabera alderatu daitezke. Erregai, energia-iturri, lehengai, hozgarri edo hondakin bakoitzerako, kalkulu-orriak isuri-faktoreen zerrenda bat du, aurrez definitua eta erreferentzia hauetan oinarritua:

- Karbonoan oinarritutako erregaiak: Isuri-faktoreak, karbono-aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak; Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa; 2024 (2023ko datuak).

- Elektrizitatea: Penintsulako sistema elektrikoaren sorreraren CO₂eq isuriak eta isuri-faktorea; Red Eléctrica de España, 2024 (2023ko datuak).

- Hidrogeno grisa: Batzordearen Erabakia, isuri-eskubideen doako esleipena harmonizatzeko Batasunaren arau iragankorrak zehazten dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/331 (EB) Erregelamendu Delegatuari jarraikiz.

- Lehengaiak eta hondakinen kudeaketa: Ihobe, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa, 2024. Ekoinvent 3.10ean oinarritutako karakterizazio-faktoreak, Euskadiko baldintza berezietarako aldatua.

- Hozgarriak eta bestelako gas fluoratuak: Isuri-faktoreak, karbono-aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak; Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa; 2024 (2023ko datuak).

Kalkulu-orrian, eskatzaile bakoitzak inbertsioaren xede den prozesuan erabilitako erregaiak, energia-iturriak, lehengaiak, hozgarriak eta hondakinak zein izan diren adieraziko du, eta inbertsioaren aurreko eta ondorengo kontsumoak sartuko ditu. Gainera, eskatzaile bakoitzak dirulaguntza eskatzen duen inbertsio hautagarriaren balioa sartu beharko du.

Inbertsio hautagarriaren eta eragotzitako isuriaren arteko erlazioa kalkulatzeko, kalkulu-orriak eskatzaile bakoitzak sartutako kontsumoen datuak eta aurrez definitutako isuri-faktoreak baliatzen ditu.

c) Eratze-eskritura (enpresa eratu berria denean bakarrik), identifikazio fiskaleko txartela, eta eskatzailearen ordezkartza-ahalordea, salbu eta agiri horiek dagoeneko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren esku badaude eta enpresan aldaketarik izan ez bada. Interesdunak azaldu beharko du noiz eta noren aurrean aurkeztu zituen agiriok, salbu eta horri berariaz uko egiten badio; uko eginez gero, espedienteari atxiki beharko dizkio nahitaez. Eskabidea ordezkari baten bidez elektronikoki izapidetzen bada, ordezkartza Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazioaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, zeina helbide honetan baitago: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

d) Sozietateen gaineko zergaren azken bi aitorpenak, edo hala badagokio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, edo azken bi ekitaldietan Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak eta agiri gehigarriak.

e) Eskatzailea enpresa txiki edo ertaina dela frogatzen duten agiriak (Europar Batasuneko araudiaren arabera ETEaren kalifikazioari jarraikiz), hau da: enpresako eta, hala badagokio, harekin elkartu edo lotutako gainerako enpresetako urteko enplegu-datuak, negozio-bolumena eta balantze orokorra. Enpresa-taldearen datu orokorrak ere aurkeztu behar dira, eta horien barruan talde osoaren antolamendu-eskema bat egongo da, partaidetzak eta enplegu-datuak, ustiapen-zifra eta balantzea jasota (laguntza eskatu aurreko bi ekitaldietakoak).

f) Inbertsio berak lortzeko beste entitate publiko edo pribatu batzuen laguntzak eskatu edo jaso baditu, adierazi entitateak eta diru-zenbatekoak.

g) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egoteari buruzko dokumentua.

h) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzei dagokienez, Merkataritza operazioetan berankortasunaren kontra egiteko neurriak ezartzeari buruzko 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak zenbateraino bete diren egiaztatzeko, honako bide hauek erabiliko dira:

- Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan pertsona fisikoak edo, pertsona juridikoen kasuan, administrazio-organoak edo haren baliokideak sinatuta. Horrez gainera, hurrengo paragrafoan ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, haien araudiari men eginda.

- Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoak hauetako bat aurkez dezakete:

- Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek sinatutako ziurtagiria, zeinean banakatuta agertzen baita ikuskatutako azken urteko kontuen memorian azaltzen diren ordainketei buruzko informazioa, baldin eta kontu horien arabera 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara (apartatu honetan ezartzen dena) iristen bada, 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen 2020ko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatzen den informazioari kasu eginez.

Hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte balio izango du ziurtagiri horrek.

- Aurreko paragrafoan aipatzen den ziurtagiria egiterik ez badago, adostutako prozedurei buruzko txostena aurkeztu ahal izango da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egina, zeinean ondorioztatuko baita, oinarritzat hartuz erreferentzia-data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeko dauden fakturen lagin bati egindako berrikusketa, salbuespenik gabe bete direla 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak, edo, salbuespenik aurkituz gero, salbuespenek ez dutela eragotzi apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea.

Legearen ondorioetarako, apartatu honetan eskatzen den baldintza betetzat joko da 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-maila Enpresen sor-

kuntzari eta hazkundeari buruzko 2022ko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan ezartzen den ehunekoa edo gehiago izanez gero.

i) Entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, zeina administratiboki eta penalki indarrean dagoen zehapen-araubidearen mende geratuko baita baldin eta datuak faltsutzen badira, baieztatzen duena baldintzak betetzen direla eta dirulaguntzaren onuradun izateko debekurik ez dagoela; hau da:

- Deskarbonizazio Industrialeko Programako laguntzak emateko oinarri arautzaileetan eskutatako baldintzak betetzen dituela.

- Ez duela jaso, epai irmo bidez, laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren kondena-rik, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpena edo hirigintza-delituak.

- Ez duela borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta ez dela prozeduraren batean kaudimengabetzat deklaratu izan edo konkurtsoan deklaratu izan –salbu eta bertan hitzarmen bat eraginkor bihurtu bada–, eta ez dagoela inongo esku-hartze judizialen pean edota desgaitua Konkurtsoari buruzko 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, artean konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitasun-aldia amaitu gabe izanik.

- Ez duela Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, bera suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu.

- Ez dagoela lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean ere: 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bata-erazintasunei buruzkoa, eta 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituenak. Edo ez dela sartzen Hauteskunde Araubide Oro-korraren 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguen multzoan, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

- Ez duela egoitza fiskala erregelamenduaren arabera zerga-paradisua gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

- Ez duela jaso, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik, lege honetan edo besteren batean oinarrituta. Zehazki, ez duela jaso zehapenik, ez administra-tiboki ez penalki, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

- Ez duela zehapenik jaso Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, edo, horrelako zehapenik jaso badu, neurri zuzen-tzaile egokiak egikaritu dituela eta zehapena bete duela.

- Ez dagoela laguntzak berreskuratzeke agindu baten mende, Europar Batasuneko Batzordearen aurretiazko erabaki batek laguntza bat legeaz kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo delako, eta ez dela krisialdian dagoen enpresa bat, finantzarioak ez diren enpresak laguntzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Batasuneko gidalerroen arabera (EBAO, 2014/C 249/01).

– Inbertsio beretarako beste entitate publiko edo pribatu batzuei eskatu dizkien edo haiengandik jaso dituen laguntzak behar bezala deklaratu dituela.

– Hala badagokio, desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota bete duela, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

– Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak BAI dituela ordainduta / Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak EZ dituela ordainduta (zer prozedura diren adierazi behar du).

– Konpromisoa hartzen duela aurretik adierazitakoa betetzen jarraitzeko, adierazpen hau aurkeztu denetik deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza osoa justifikatzen den arte, eta ez duela enpresaren deslokalizaziorik eragingo, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Konpromisoa hartzen duela emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte adierazitako ingurua barretan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko.

15. oinarria.– Eskabideen analisia.

SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari dagokio aurkeztutako eskabideak analizatzea eta ebaluatzea, entitate laguntzaileei buruzko 7. artikulua esleitzen dizkion funtzioen arabera.

16. oinarria.– Organo kudeatzailea eta laguntzak emateko prozedura.

1.– Deskarbonizazio Zuzendaritza da prozedura kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Eskabideak ez badira osorik betetzen, edo haiekin batera ez badira aginduzko agiriak aurkeztu, entitate eskatzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio, bitarteko elektronikoen bidez errekerimendua eginda, falta hori zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko, bitarteko elektronikoen bidez hori ere. Horrez gain, adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusten den moduan.

3.– Nolanahi ere, laguntza hauen organo kudeatzaileak –Deskarbonizazio Zuzendaritzak, alegia– beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango die entitate eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu haiek aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetu ahal izateko. Agindu honetan berariaz aurreikusi ez diren gaitan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean) xedatutakoa aplikatuko da.

4.– Entitate laguntzaileak Deskarbonizazio Zuzendaritzari igorritako txosten teknikoa jaso ondoren, eta behin eskabideak ebaluatu ondoren, batzordeak akta bat egingo du, eta bertan ebaluazioaren emaitza jasoko da, 6. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz dagokion lehentasun-hurrenkeran. Akta hori organo kudeatzaileari bidaliko zaio, hau da, Deskarbonizazio Zuzendaritzari.

Eskabide batek baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute, espediente osatu zen egunak ezarriko du esleipen-ordena.

5.– Organo kudeatzaileak, Ebaluazio Batzordearen akta ikusi ondoren, txosten bat egingo du, eta bertan jasoko du eskura duen informaziotik ondorioztatzen dela enpresa onuradunek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio Trantsizio Energetikoko sailburuordeari. Proposamen horretan, eskatutako dirulaguntzak ematea edo, hala badagokio, ukatzea proposatuko du, eta, ematen badira, pertsona edo entitate onuradunen izen soziala, emandako diru-zenbatekoa (urteka banatuta) eta diruz lagundutako inbertsio-proiektua

adieraziko ditu. Ukatutako eskabideei dagokienez, eskatzaileen izena edo izen soziala eta laguntza ukatu izanaren arrazoiak adieraziko ditu. Era berean, egindako ebaluazioa eta ebaluazioa egiteko jarraitutako balorazio-irizpideak zehaztu beharko dira.

Proposamen hori behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluen 3. apartatua xedatutakoaren arabera.

17. oinarria.— Dirulaguntzak ematea.

1.— Trantsizio Energetikoko sailburuordeak, Deskarbonizazio Zuzendaritzaren proposamenez —zuzendaritza hori baita organo kudeatzailea—, deialdia argitaratzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean, egintza bakar baten bidez eman eta jakinaraziko du prozedura ebatzen duen eta emandako eta ukatutako laguntzak zein izan diren adieraziko duen ebazpena. Epe hori inolako ebazpenik jakinarazi gabe bukatzen bada, laguntza-eskabidea administrazioaren isiltasunaz ezetsi dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Laguntzak puntuazio-ordenaren arabera emango dira, agindu honetako 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, harik eta aginduko 2. oinarrian esleitutako kreditua agortzen den arte. Entitate batek baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute, espediente osatu zen egunaren arabera ezarriko da esleipen-ordena.

Administrazio-ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda biltzeaz gain, espresuki adieraziko dira xedea, onartutako inbertsio-plana, diruz lagun daitekeen inbertsioa eta, ondorioz, emandako diru-zenbatekoa, banaketa eta guzti. Inbertsioak urte anitzekoak badira, urtekako banaketa, eta, bestalde, gainerako eskabideen ezestea, ukatzeko arrazoiak adierazita.

Ordaintzeko modua eta epeak eta agindu honetan eskatutako baldintzak eta betekizunak justifikatzeko modua deialdi honen oinarrietan xedatutakoaren arabera egingo dira.

2.— Ebazpenak bakarka jakinaraziko zaizkio eskatzaile bakoitzari, bide elektronikoen bitartez, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta haren egoitza elektronikoa urtero argitaratzea emandako dirulaguntzen zerrenda —bakoitzaren diru-zenbatekoa, diruz lagundu den jardura eta pertsona edo entitate onuraduna adierazita—, bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin.

3.— Emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioka Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

18. oinarria.— Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea.

1.— Administrazioak laguntzen ordainketa egin ahal izateko, onuradunak administrazio honen hirugarrenen erregistro egokian jasota egon beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

2.— Dirulaguntzaren ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubidea xedatzen duen 1981eko abenduaren 17ko 698/1981 Dekretuan ezarritakoaren arabera izango da, eta ordainketa hori artikulua honetan deskribatutako moduan egingo zaio enpresa onuradunari.

a) Lehen ordainketa, aurreratua, emandako dirulaguntzaren % 5koa, behin interesdunak laguntza onartu ondoren egingo da, edo dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 15 egu-

neko epean, berariaz uko egin ezean. Bigarren ordainketari begira, dagokion ikuskapena egin eta gero, kontuan izango da aurrerapenez jasotakoa.

b) Gainerako ordainketak egin dakizkion, enpresa onuradunak honako apartatu hauek bete beharko ditu «Nire karpeta» atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-orrian:

- Dirulaguntzaren xede diren inbertsio gauzatuen adierazpena.
- Fakturen koadroa, inbertsioaren gastuen eta diru-zenbatekoen zerrenda sailkatuarekin (BEZa kanpoan utzita).
- Adierazpen bat, zeinaren bidez jasotzen baita ezen, laguntza jaso ondoren, onuraduna ez dagoela berreskuratzeko inongo aginduren mende, Europar Batasuneko Batzordeak aurretiaz erabakitzeagatik laguntzaren bat legez kanpokoa eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela.
- Dirulaguntzaz gainera, enpresak dituen baliabide propioen diru-zenbatekoaren, jatorriaren eta gauzatzearen gaineko adierazpena, diruz laguntzeko moduko inbertsioaren diru-zenbatekoaren % 25 edo gehiagokoei buruzkoa.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaritzek ikuskatuko dituzte deklaraturako inbertsioak. Aurkeztutako fakturek bat egin beharko dute lehen aipaturako fakturen koadroan zehaztutakoekin. Fakturak ikuskatzaileen esku egon beharko dute, eta, fakturretan, jaulkitze-dataz gain, hartzekodunaren identifikazioa jaso beharko da (entitate edo enpresa hornitzailearen IFZ eta izen soziala), bai eta ordainagiriak ere, haien diru-zenbatekoa (BEZa banakatua) eta ordainketa-data adierazita. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen diren agiriak eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango da, deklaraturakoa egiaztatzeko.

Bigarren ordainketarako, dagokion ikuskapena eginda, kontuan izango da aurrerapenez jasotakoa.

3.– Laguntza ordaindu baino lehen, aurreko paragrafoan adierazitako alderdiak egiaztatu ostean eta Deskarbonizazio Zuzendaritzako teknikariek sinaturako ordainketa-proposamenaren txostena aztertu eta gero, zuzendaritza horretako titularrak ebazpena emango du, enpresa onuradunari ordaindu behar zaion diru-zenbatekoa (osoa edo partziala) jakinarazteko. Dirulaguntzak, gehienez ere, urtean bi aldiz ordainduko dira. Ordainketa horien diru-zenbatekoa justifikaturako inbertsioekiko proportzionala izango da.

4.– Inbertsioak egiteko epea amaituta, enpresak bi hilabete izango ditu inbertsioen azken adierazpena aurkezteko. Hala ere, onuradunak epe hori amaitu aurretik hala eskatzen badu, organo emaileak epe hori luzatu ahal izango du, justifikaturat jotz gero. Epe hori igarota, egindako inbertsioak ebaluatuko dira, ordura arte aurkeztutako inbertsioen eta gastuen deklarazioetan oinarrituta, eta organo kudeatzaileak dagokion laguntzaren azken likidazioaren txostena egingo du, inbertsio justifikatuen partidari buruzkoa.

5.– Justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu diren gastuak hartuko dira egindako gastutzat. Onuradunak bere merkataritza-eragiketetan egindako diruz laguntzeko moduko gastuak sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko ditu edo, halakorik ezean, Merkataritza Eragiketetan Berankortasuna Ekiditeko Neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan.

6.– Enpresa batek laguntza ez-legitimorik badu, zeinaren gainean Europako Batzordeak kontrako erabakia hartu baitu dirulaguntza eman ondoren, eta hura berreskuratzeko agindu eta laguntza hori itzuli ez bada, azken ordainketarako eskabidearekin batera aurkeztu beharko da

hura ezeztatzeko justifikazioa. Izan ere, programa honen esparruan emandako laguntza ez da ordainduko harik eta aipatutakoa justifikatu arte.

7.– Dirulaguntza ezingo da ordaindu baldin eta onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, itzulketa-ebazpen bat dela-medio zorduna bada.

8.– Dirulaguntzaz gain funts propioak edo bestelako dirulaguntza edo baliabideak erabiltzen direnean jarduerak finantzatzeko, funts horien diru-zenbatekoa eta jatorria egiaztatu beharko dira justifikazioan, baita diruz lagundutako jardueretan nola erabili diren ere. Era berean, jasotako diru-funtsek sorrarazten dituzten finantza-etekinak egiaztatu beharko dira, halakorik egonez gero.

19. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Onuradunak edozein momentutan uko egin ahal izango dio laguntzari, espresuki eta idatziz, dirulaguntzaren ordainketa jaso aurretik.

b) Dirulaguntzaren esleipena oinarritzen duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea.

c) Dirulaguntza ematen duen entitatearen aurrean eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.

d) Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak ere onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenak ere.

e) Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari jakinaraztea helburu bera betetzeko dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu direla beste edozein administrazioetatik edo ente publiko nahiz pribatutatik. Dirulaguntzak edo baliabide horiek jaso direla jakin bezain laster bidali beharko da jakinarazpena, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

f) Baldin eta aldatu bada laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa, horren berri ematea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari. Dirulaguntzak edo baliabide horiek jaso direla jakin bezain laster bidali beharko da jakinarazpena, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

g) Enpresak laguntza ez-legitimorik badu, Europako Batzordeak dirulaguntza eman ostean erabaki negatiboa hartu duelako eta, ondorioz, itzultzeko agindua duelako, eta oraindik itzuli ez badu, horren berri eman beharko zaio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari.

h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, betetzen dituela egiaztatzea dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eta hura ordaintzeko unean, erregelamenduz zehaztutakoaren arabera.

i) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatzeko zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, eta eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro izatea, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

j) Jasotako dirulaguntza zertan erabili den egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

k) Dirulaguntza jaso duten programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia ematea, gardentasun-legerian ezarritako baldintzetan.

l) Jasotako diru-funtsak edo gauzaturiko jarduerarako nahiz jarduketarako emandako dirulaguntzaren kostuaren gaineko soberakina itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36. artikuluan jasotako kasuetan.

m) Hizkerak eta irudiek ikuspegi intersektzionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

n) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea.

o) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, halakotzat hartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 49. artikuluan araututakoa.

p) Lagundutako inbertsioek, enpresa handien kasuan, gutxienez bost urteko amortizazio-aldia izango dute, eta enpresaren aktiboan gutxienez bost urte iraungo dute. ETEen kasuan, aldi horiek hiru urtekoak izango dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da eskatuko baldin eta, indarrean dagoen sektore-araudia betez, elektrizitatearen konpainia banatzaileari edo garraiatzaileari laga behar zaizkion azpiegitura elektrikoetako inbertsioak badira.

20. oinarria.— Emandako dirulaguntza aldatzea.

1.— Emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki dezake Trantsizio Energetikoko Sailburuordetza, ofizioz edo interesdunak eskatuta, sailburuordetza baita dirulaguntzaren organo emailea.

Aldaketa onuradunak eskatuta egiten bada, onuradunak berak jakinarazi beharko dio organo kudeatzaileari, jakin bezain laster eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik edo justifikatzeko unean bertan, dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar objektibo edo subjektibo aldatu dela.

2.— Ondorio horietarako, entitate onuradunak inbertsioa egiteko aurreikusitako epeak nahitaez bete beharrekoak izango dira. Dena den, enpresa onuradunak aldeztu aurretik eskabidea egin eta justifikatuz gero, onetsitako denbora-horizontea amaitu baino lehen, dirulaguntzak eman zituen administrazio-organoak luzapenak eman ahal izango ditu –12 hilabete gehienez– inbertsioak egiteko, baldin eta alegatutako arrazoiek hori justifikatzen badute. Luzapen horrek –halakorik badago– ez du gehikuntzarik eragingo emandako laguntzaren diru-zenbatekoan.

3.— Egiazki egindako edo egitekoa den jarduerak dirulaguntzaren xedearen barruan egon behar du, eta aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak ezin dira egon onuradunaren borondate hutsaren mende.

Baloratuko da ea aldaketa dakarten elementu eta inguruabar berri horiek, baldin hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izan balira, dirulaguntza ukatzeko arrazoi nahikoa izango ziren edo ez, eta, orobat, ea aldaketaren munta hainbestearinokoa den, ezen hasieran onetsitako proiektuaren funtsa bera alda dezakeen.

4.– Baldin eta onuradunak jada dirulaguntzaren diru-zenbateko osoa edo zati bat jaso badu eta aldaketaren ondorioz dirulaguntzaren diru-zenbatekoa murriztu behar bada, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen Legearen 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

21. oinarria.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Enpresa onuradunak agindu honetan ezarritako eskakizunak, aplikatu behar diren gainontzeko arauak edo dirulaguntzak emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak betetzen ez baditu, Trantsizio Energetikoko sailburuordeak dirulaguntza bertan behera uzteko administrazio-ebazpena emango du, aurretik organo kudeatzaileak –Deskarbonizazio Zuzendaritzak– ez-betetzearen espedientea hasi eta izapidetu ondoren, zeinean interesdunari entzunaldia emango baitaio. Horrek laguntza jasotzeko eskubidearen galera eragingo du, eta, hala badagokio, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako dirulaguntzen printzipala eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharra ere, honako arau hauetan ezarritako baldintzetan, betiere: Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta horiek garatzeko arauak. Diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako.

Dirulaguntza ordaintzen denetik diru-itzulketa erabakitzen den arte –edo zordunak diru itzulia ingresatu arte, ingresoa erabakiaren aurretik egiten bada– jasotako diru-zenbatekoak itzuli beharko dira eta aplikatu beharreko berandutze-interesak eskatuko, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta haren Erregelamendua onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikulutik 93. artikulura bitartekoetan ezarritako kasuetan.

2.– Erabateko ez-betetzeen artean honako hauek daude:

- a) 100.000,00 euroko gutxieneko inbertsio onartua ez gauzatzea.
- b) Onartutako inbertsioak ez hastera 2025eko ekitaldian, agindu honen 8. oinarrian ezarritako baldintzetan.
- c) Enpresaren baliabide propioak ez aplikatzea diruz laguntzeko modukotzat jotako inbertsioaren zenbatekoaren % 25ean, gutxienez.